

2015eko URRIAREN 29an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **14 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2015eko urriaren 29an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Mikel Goenaga Gubia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Pablo Garcia Astrain jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez da etorri	Imanol Lasa Zeberio jn.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatzu ditu Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA

a) 2015eko irailaren 24koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

b) 2015eko urriaren 15ekoa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- UDAL ORGANOEEN KUDEAKETAREN KONTROLA

a) Alkatetzaren dekretuak: 2015eko irailaren 21etik urriaren 23ra

Segidan, Alkatetzak 2015eko irailaren 21etik urriaren 23ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

b) Tokiko Gobernu Batzarra: 2015eko irailaren 21etik urriaren 19ra

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko 2015eko irailaren 21etik urriaren 19ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

3.- GAI HAUEN BERRI JAKITEA

Ondoren, eta Udalbatzarrari jakinaren gainean jartzeko, hitzez hitz ondoren jasotako erabakien berri eman du **alkate** jaunak:

a) 1308 Dekretua. Gizarte Politikako batzordeburua

Alkatetzaren 1308 Dekretua, 2015eko irailaren 24koa:

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki-erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, 125.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta informazio-batzordeak hala proposatuta,

ERABAKI DUT

Lehen.- 2. alkateorde GLORIA VAZQUEZ HERRANZ andreari eskuordetzea GIZARTE POLITIKAKO informazio-batzordearen lehendakaritza eraginkorra.

Bigarrena.- Eskuordetza horrek eragina izango du ordezkariak zinegotzi izaera duen denboran. Dena den, edozein unetan eta baldintza formalak aurrez bete ondoren, eskuordetza aldatu edo baliogabetu ahal izango da.

Hirugarrena.- Dekretu hau izendatutako ordezkariari jakinaraztea, eskuordetza onar dezan. Udalbatzarrari honen berri ematea, hark egiten duen lehenengo osoko bilkuran; eta, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratzea.

Laugarrena.- Dekretu hau Alkatetzaren ebazpen-liburuan transkribatuko da, eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

b) Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia, 2015eko urriaren 13koa: Herritarren Arreta Zerbitzu integrala (HAZ) ezartzea

2014ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartu zituen, ZARAUZKO UDALEAN HERRITARREN ARRETA ZERBITZU INTEGRALA (HAZ) ezartze aldera:

Lehena.- Herritarren Arretarako Bulego Integrala ezartzeko prozesuari ekitea eta, horretarako, EUDEL eta IVAP erakundeek diseinatutako Prestakuntza eta Tutoretza Planean parte hartzea.

Bigarrena.- Atxikitze-protokoloa izenpetzea, euskal autonomia erkidegoko udalerrietan herritarren arretarako zerbitzu integralak ezartzeko prozesuak garatzeko prestakuntza- eta laguntza-planean parte hartzeko.

Hirugarrena.- Jabier Etxaburu Elu jauna, Herritarren Arretarako zinegotzi arduraduna, izendatzea prozesuaren arduradun politikoa.

Laugarrena.- Udaleko ondorengo langile publikoak izendatzea prozesuaren arduradun teknikoak:

- Idazkari eta zerbitzu orokorretako burua: Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
- Gizarte Zerbitzuetako teknikaria: Mikel Mendizabal Illaramendi jn.
- Zerga-biltzailea: Ana Eizamendi Lazkano and.
- Hirigintza eta plangintzako arretaren kudeaketa administraria: Agustin Gabirondo Zumeta jn.

Bosgarrena.- Arduradun politikoari eta arduradun teknikoei laguntza eta erraztasunak ematea Prestakuntza eta Tutoretza Planean online jarduerak eta presentziazko jardueretan parte hartzeko.

Seigarrena.- Neurriak hartzea Planak udalean Herritarren Arreta Integralerako Bulegoa jartzeko erabakitzen dituen egitekoak bete eta garatzeko. Neurri horietako batzuk izango dira (ez da zerrenda itxia):

Prozedurak arrazionalizatzeko eta sinplifikatzeko prozesu bat egin eta beteko da, eta, prozesu horren ondorioz, Udalaren Administrazio Prozeduren Gidaliburua egingo da.

Zerbitzu berria jartzeko espazio fisikoa egokituko da.

Zerbitzua emateko langile publikoak eta baliabide materialak izendatuko dira.

Prestakuntza emango zaie zerbitzu berrirako izendatu diren langile publikoei.

Zazpigarrena.- Udalak 1.000,00 € ordainduko ditu Prestakuntza eta Laguntza Planean matrikulatzeko, dagokion faktura edo ordaintzeko agiria Udalari igorri ondoren.

Zerbitzua arautzeko araudiari dagokionez, 2014ko urriaren 29an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak onartu zuen ZARAUZKO UDALEKO HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (HAZ) ARAUTZEKO ORDENANTZA. Ordenantzaren testu osoa 2015eko urriaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (3 zk.) argitaratu zen.

Zerbitzu berriko lanpostuetarako langileak hautatu eta atxikitzeari dagokionez, 2014ko azaroaren 26an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak onartu zuen ZARAUZKO UDALEAN HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (HAZ) JARTZEAREN ONDORIOZ LANGILEAK BIRBANATZEARI BURUZKO MEMORIA. Bertan, antolaketa hainbat lanpostu amortizatzea eta, horren ondoren, beste batzuk sortzea jasotzen da.

Halaber, "Prozeduren Eskuliburua" prestatzeko lantaldea eratu zen. Azken berrikuste baten zain, esan daiteke talde honek amaitu duela eskatutako lana.

Azkenik, eta gune fisikoari dagokionez, zerbitzurako kokalekurik egokiena aztertu ondoren, kokaleku-proposamen bat prestatu zen, Etxezabalan guneak berriro banatuta.

Joan zen maiatzaren 24an udal hauteskundeak egin ostean, udal korporazio berria eratu zen. Hori horrela, hasieran prozesua nolabait geldia gotu eta gero, gaiari berriro ekin zaio eta kronograma bat prestatu da, oraindik egin gabe dauden tramiteak bukatu eta zerbitzu integrala martxan jarri arte.

Horretarako, IVAP eta EUDEL programan prozesua zuzendu eta koordinatzen zuena, Roberto Etxandio jn., kontratatu da, aholkularitza eman dezan.

Jada egin dira informazio-bilera batzuk, prozesua berriz abian jartzearen berri emateko. Horrela, urriaren 5ean udal departamentu guztiei jakinarazi zaie, eta urriaren 6an Gobernantza Batzordeak aztertu du gaia.

Hori guztia kontuan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, ERABAKI DU:

Lehena.- Ontzat ematea ZARAUZKO UDALAN HERRITARREN ARRETA ZERBITZU INTEGRALA (HAZ) ezartzeko prozesua, eta jarrai dadila hori martxan jartzeko beharrezko diren tramiteak egiten.

Bigarrena.- JESUS ARANA GOMEZ jn. izendatzea proiektuaren arduradun politikoa.

4.- INFORMAZIOA

a) Finantza eta aurrekontuei buruz: 2015eko 3. hiruhilekoa

Udalbatzarrak jakin berri du 2015eko hirugarren hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

b) Ordainketako batez besteko epeari buruz: 2015eko 3. hiruhilekoa

Halaber, Udalbatzarrari jakitera eman zaio 2015eko hirugarren hiruhileko ordainketako batez besteko epeari buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

5.- KOMUNIKAZIOA UDALBATZARRARI: GASTU ARAUA ETA AURREKONTUEN EGONKORTASUNA BETE EZ IZANA 2015eko EKITALDIKO KREDITU-ALDAKETAK ONARTZEAN

Ondoren, Udalbatzarrari jakitera eman zaizkio Kontu-hartzaitzak 2015eko martxoaren 31n eta apirilaren 16an egindako txostenak: aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzei buruzkoak, eta

Udalak onartu berri dituen aurrekontuaren likidazioaren zein kreditu aldaketan ondorioz egin beharrekoak zirenak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

6.- KULTURA INFORMAZIO BATZORDEAREN MAIZTASUNA ALDATZEA

Alkate jaunak gai-zerrendatik kendu du aztergaia.

7.- GIZARTE-ZERBITZUEN DEPARTAMENTUTIK "ZARAUZTIK MUNDURA, MUNDUTIK ZARAUZTZA" BEKA EMATEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA

2015. urtean "ZARAUZTIK MUNDURA, MUNDUTIK ZARAUZTZA" BEKA EMATEKO OINARRI BEREZIAK prestatu ditu Gizarte Zerbitzuen Departamentuak.

Kazetaritza idatziaren edo ikus-entzunezkoen arloan zabalkunderako eta ikerketarako beka horrek helburu du migratzaileak izan ziren eta diren zarauztarren bizipenak, testigantzak eta bizitza-istorioak jasotzea.

Aurrekoa ikusita, eta Gizarte Politikako informazio-batzordeak aurrez irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, botoen gehiengoaz,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Gizarte Zerbitzuen departamentutik 2015. urtean "ZARAUZTIK MUNDURA, MUNDUTIK ZARAUZTZA" BEKA emateko OINARRI BEREZIAK onartzea eta dagokion deialdia egitea.

Bigarrena.- 3.000 euroko gastua onartzea, 0503.480.07.231.10. 2015 partidaren kontura.

Hirugarrena.- Oinarriak eta deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

"ZARAUZTIK MUNDURA, MUNDUTIK ZARAUZTZA" IKERKETA BEKA OINARRIAK

1. Helburua

Oinarri hauen xedea ondorengo bekaren emakida arautzea da:

«ZARAUZTIK MUNDURA, MUNDUTIK ZARAUZTZA», kazetaritza idatziaren arloan dibulgaziorako eta ikerketarako beka. Bere helburua egileei egindako lana ordaintzea da.

2. Eskaerak

Oinarri hauen helburuarekin bat datozen pertsonak edo pertsona fisikoak elkarteak (kasu honetan pertsona batek izango du onuradun izaera den ordezkaritza gisa) eskatu ahal izango dute beka hau.

3. Balorazio irizpideak

Dagokion deialdiaren ebaluaziorik begira hauek dira baloratuko diren irizpideak:

- Aurkeztutako proiektuaren interesa, kalitatea eta originaltasuna: 0-15 puntu.
- Proiektuak Zarauzko migrazioak ulertzeko eta ezagutzera emateko egiten duen ekarpena, alegia, nola jorratzen duen Zarauzko migrazioen errealitatea. 0-15 puntu.
- Aurkeztutako lana euskaraz izatea. 0-10 puntu.
- Migrazio-testigantza horietan haurren eta familien migrazioen berri ematea. 0-5 puntu.
- Genero berdintasunaren alorrean eragin positiboa duten gaiak edota irudiak erabiltzea: 0-5 puntu.

Era berean, ezinbestekoa izango da migrazioaren gaiaren trataera profesionala: Zarauzko migrazio mugimenduen ikuspuntua lantzea, migrazio garai ezberdinak kontuan hartzea, beste leku batzuetara joandako zarauztarren migrazioak ere lantzea, eta beka honen xede diren helburuak lortzeko migrazio-testigantzen hautaketa aproposa egitea.

Beka puntuaziorik altuena lortzen duenari emango zaio, gutxienez 25 puntu lortu behar direlarik.

4. Diru-laguntza ordaintzea

Diru-laguntza honen %70 ebatzen denean ordainduko da, eta gainontzeko %30a diruz lagundutako jarduerara amaitu eta behar bezala justifikatu ondoren, hurrengo puntuan adierazi bezala.

5. Diru-laguntzak justifikatzea

1. Arau orokor gisa, diru-laguntza emateko ebaluaziorik ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla dokumentu bidez justifikatu beharko da, oinarri honetan adierazten den eran eta epeetan.
2. Oinarri hauek arautzen duten diru-laguntzaren hartzaileek laguntza jaso ahal izateko agiri hau aurkeztu behar dute alde aurretik:
 - Egindako lanaren egiaztapen eta lekuko gisa baliagarri izango den dokumentazioa
3. Agiriak aurkezteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, beka esleitzen den unetik kontatzen hasita.
4. Diru-laguntza eman duen organoak egiaztatuko du diru-laguntza ematea justifikatuta ote dagoen, diru-laguntza emateko oinarrian izan zen jarduerara gauzatu den edota helburua bete ote den.

“ZARAUZTIK MUNDURA, MUNDUTIK ZARAUZTA”, GIZARTE ZERBITZUEK KUDEATZEN DITUZTEN PROGRAMEN BARRUAN EMANGO DEN BEKAREN 2015eko DEIALDIA

“Zarauztik Mundura, Mundutik Zarautza”, kazetaritza idatziaren arloan dibulgaziorako eta ikerketarako beka.

1. Helburua

Gure herria historian zehar gertatu diren migrazio mugimenduen emaitza denez, migrazio horien testigantza jaso nahi dugu, izan ere, oinez ibiltzen ikasi orduko ahaztu genuen hegan egiten. Baina ibiltariak bihurtu ginenetik, historian zehar, munduko bazter guztietan errepikatu den kontua da lurralde eta amets berrien bila batetik bestera ibiltzea, bizimodu hobearren esperantza.

Gure herria ere amets horien bilduma da: baserrietatik eta landa eremuetatik kalera hurbildu ziren sasoi bateko nekazariak, industrian lanean aritzera. Geroago, Espainiako hainbat lurraldetatik iritsi ziren milaka langile, gerraosteko hotzari eta goseari hemengo fabriketan behar zen lan-eskuarekin aurre egin nahian. Azken urteotan, berriz, arrazoi ezberdinengatik, munduko hainbat bazterretatik ari zaizkigu iristen zarauztar berriak.

Ikerketa eta dibulgazio beka honek migratzaileak izan ziren eta diren zarauztarren bizipenak, testigantzak eta bizitza-istorioak jaso behar ditu. Istorio bakarra izan daiteke, edo hainbat istorio, ikerketa berean.

Udalak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko du ikerketa-beka hori.

2. Arloak

Gaiarekin zerikusia duen ikerketa honako formatu honetan aurkeztu beharko da:

Idatziz, gerora liburu gisara argitaratu ahal izateko, gutxienez 50.000 karaktere.

3. Instrukzioa eta proposamena

Instrukzioa eta proposamena Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean 17. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

Organo eskudunak:

- Instrukzioa: Immigrazio teknikaria
- Balioespen Batzordea: Kide anitzeko organo bat, jendarte politikarako batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena: Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraiki.

4. Eskaerak

Beka hau oinarri hauen helburuarekin bat datozen pertsonak edo pertsona fisikoen elkarteek (kasu honetan pertsona batek izango du onuradun izaera denen ordezkari gisa) eskatu ahal izango dute.

Horrez gain, eskatzaileak nahitaez egiaztatu beharko du diru-laguntza eskatzeko datan adin nagusikoa dela

Eskariak aurkezteak deialdi honetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla esan nahi du.

Eskaerak zuzenean aurkeztu ahal izango dira, astelehenetik ostiralera (8:30etik 14:30era), edo postaz bidaliko dira, ondoko helbidera:

Zarauzko Udala - Jendarte Zerbitzuak Departamentua (Immigrazio Zerbitzua)
Zigordia kalea 33 - 20800 ZARAUTZ (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943-005127
e-maila: jaranguren@zarautz.org

Deialdi honetan parte hartzeko honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

1. Administrazioko dokumentuak:

- a) Eskaera-orria, behar bezala sinatua eta ziurtatua. (I. eranskina).
- b) Eskatzailearen / ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia.
- c) Zerga-obligazioak eta Gizarte-segurantzarekikoak ordainduta dituelako ziurtagiria.
- d) Diru-laguntza eskatzen den proiektuaren gaineko azalpen txosten zehatza, balorazio irizpideetan jasotako atalak azalduz.

c) atalean eskatzen den dokumentazioa zinpeko aitorten baten bidez ordezkatu daiteke, eta bertan bi puntu horietan esaten dena jaso behar da.

2. Ikerketari buruzko informazioa:

Honako hau jasoko duen azalpen memoria:

- Proiektuaren deskribapena, osatzen duten jarduerak zehaztuta.
- Lortu nahi diren helburuak, eta bekaren xedearen gaiari (Zarauzko migrazioen testigantza) nola lotuko zaion deskribatzea.
- Gauzatzeko aurreikusitako kronograma.

5. Balorazio irizpideak

Dagokion deialdiaren ebazpenari begira hauek dira baloratuko diren irizpideak:

- Aurkeztutako proiektuaren interesa, kalitatea eta originaltasuna: 0-15 puntu.
- Proiektuak Zarauzko migrazioak ulertzeko eta ezagutzera emateko egiten duen ekarpena, alegia, nola jorratzen duen Zarauzko migrazioen errealitatea. 0-15 puntu.
- Aurkeztutako lana euskaraz izatea. 0-10 puntu.

- Migrazio-testigantza horietan haurren eta familien migrazioen berri ematea. 0-5 puntu.
- Genero berdintasunaren alorrean eragin positiboa duten gaiak edota irudiak erabiltzea: 0-5 puntu.

Era berean, ezinbestekoa izango da migrazioaren gaiaren trataera profesionala: Zarauzko migrazio mugimenduen ikuspegia lantzea, migrazio garai ezberdinak kontuan hartzea, beste leku batzuetara joandako zarauztarren migrazioak ere lantzea, eta beka honen xede diren helburuak lortzeko migrazio-testigantzen hautaketa aproposa egitea.

Beka puntuaziorik altuena lortzen duenari emango zaio, gutxienez 25 puntu lortu behar direlarik. Eta aurkeztutako lanek ez badute puntuazio hori lortzen beka eman gabe geratuko da.

6. Epaimahaikideak

- Migrazio gaietan eskarmentua duen herritar bat.
- Kazetaritza idatziaren edo ikus-entzunezkoen arloan diharduen herriko bi kazetari.
- Zarauzko Udaleko Immigrazio arloko zinegotzia
- Idazkaria: Zarauzko Udaleko immigrazio teknikaria

7. Iraupena

Beka emango zaion proiektuaren iraupena gutxienez hiru hilabetekoa eta gehienez sei hilabetekoa izango da, beka esleitzen den unetik kontatzen hasita.

Beka hau luzaezina da.

8. Ebazteko eta jakinarazteko epea

Prozeduraren izapideak bete ondoren, eta ebazpen-proposamena egin aurretik, 30/1992 Legearen 84. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren izapidea beteko da, prozeduran interesatuek agertutako egintzak eta argudiatutako alegazio eta probak bakar-bakarrik agertu edo kontuan hartzen ez badira behintzat

Eskariak ebazteko gehienez 3 hilabeteko epea egongo da, eskariak jasotzeko jarritako epea amaitzen denetik, eta ordurako berariazko ebazpenik ateratzen ez bada, gaitzetsi egin direla ulertuko da.

Ebazpenak administrazio-bidea amaituko du

Interesatuei erabakiaren berri emango zaie, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Udalak emandako diru-laguntzen argitalpena egingo du 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.

9. Epeak

Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

10. Diru-laguntza ordaintzea

Diru-laguntza honen %70a ebazten denean ordainduko da eta gainontzeko %30a diruz lagundutako jarduera amaitu eta behar bezala justifikatu ondoren, hurrengo puntuan adierazi bezala.

11. Diru-laguntzak justifikatzea

1. Arau orokor gisa, diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla dokumentu bidez justifikatu beharko da, oinarri honetan adierazten den eran eta epeetan.
2. Oinarri hauek arautzen duten diru-laguntzaren hartzailleek laguntza jaso ahal izateko agiri hau aurkeztu behar dute aldeztu aurretik:
 - Egindako lanaren egiaztapen eta lekuko gisa baliagarri izango den dokumentazioa.
3. Agiriak aurkezteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, beka esleitzen den unetik kontatzen hasita.
4. Diru-laguntza eman duen organoak egiaztatuko du diru-laguntza ematea justifikatuta ote dagoen, diru-laguntza emateko oinarrian izan zen jarduera gauzatu den edota helburua bete ote den.

12. Onuradunen betebeharrak

Onuradunak honako konpromiso hauek hartzen ditu beren gain:

- a) Lana egiten duen bitartean oinarri hauetatik sortzen diren arauak denbora guztian betetzea.
- b) Beka jaso duen proiektua ezarritako epean burutzea, aurkeztutako memorian agindutako baldintzak betez, eta hori ez egiteko aitzakia gisa ezingo da erabili lehenago edo geroago agindutako beste konpromisorik.
- c) Beka esleitzen den unetik kontaktzen hasita sei hilabetekoa izango da aurkezteko epea egindako lanaren egiaztapen eta lekuko gisa baliagarri izango den dokumentazioa.
- d) Immigrazio Zerbitzuak eskatzen duten informazio guztia ematea.

13. Diru-laguntza hartzailearen ekimenez itzultzea

Diru-laguntzaren onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du diru-laguntza, Udalari erabaki horren berri emanez eta dagokion dirua 2101.0076.57.0000002311 kontuan sartuz.

14. Diru-laguntzaren zenbatekoa

Beka hau norgehiagoka araubidez emango da eta 3.000,00 eurokoa da.

15. Zuzkidura eta aurrekontu-partida

Deialdi honen bidez diru-laguntza emateko zenbatekoa 3.000 eurokoa da, aurrekontuko 0503.480.07.231.10 2015 partidaren egotea.

16. Lanaren jabetza

Beka jasotzearen ondorioz egindako lanaren jabetza Zarauzko Udalarena izango da.

17. Araudia

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzena (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko BOE); eta Zarauzko Udalak diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea eta Gizarte Zerbitzuak Departamentuaren oinarri bereziak.

18. Errekurtsoak

Deialdi honen aurka berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio hilabeteko epean deialdia onartu duen organo eskudunari, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari.

Epeak bi kasuetan deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontaktzen.

8.- 2014ko GIZA BALIABIDE PLANA –ZARAUZKO UDALEKO ETA HAREN ERAKUNDE INSTRUMENTALETAKO GIZA BALIABIDEAK ANTOLATU ETA ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA – ALDATZEA.

2014ko irailaren 24an egindako osoko bilkuran, Udaltzarrak honako hauek onartu zituen: Zarauzko Udaleko eta erakunde autonomoetako ORGANIGRAMA ETA LANPOSTUEN DESKRIBAPEN FITXEN ESKULIBURUA, "TRANSIZIOZKO FUNTZIONAMENDU ALDIA" izeneko dokumentuan jasotako neurriak, eta 2014 GIZA BALIABIDE PLANA – Zarauzko Udaleko eta haren erakunde instrumentaletako giza baliabideak antolatu eta arrazionalizatzeko programa – .

Giza Baliabide Planak, 5. puntuan, Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa garatzeko neurrien artean, 5.2. atalean –Langileen berresleipenak– honako hau zegoen:

5.2.3.1. Beste berresleipen batzuk. Zarauzko Udalaren hainbat departamentuen beharrak ikusirik, eta 4. puntuan jasotako irizpideak kontuan hartuta, lanpostuetan berresleipenak ematen dira, atxikipen hauek **behin betikoak** izanik, honako taularen arabera:

	JATORRIZKO LANPOSTUA	TITULARRA	TALDEA	ATXIKIPEN BERRIA	TALDEA
1	Lorategietako arduraduna (HERRILAN, AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK)	Patxi Coira Rey	A2	Hezkuntzako arduraduna (HEZKUNTZA) (*)	A2
2	Hezkuntzako arduraduna (HEZKUNTZA)	Arantza Aldalur Agerrista	A2	Hizkuntza Trebatzailea-Normalizatzailea (EUSKARA) (**)	A2
3	Kulturako arduraduna (KULTURA)	Fernando Llopis Lucas	A2	Ekitaldi eta Jaien Koordinatzailea (TURISMOA, EKITALDIAK ETA JAIK) (***)	A2

(*) Hezkuntzako arduradun lanpostua egun karrerako funtzionario batek betetzen du zerbitzu eginkizunetan. Udal langile hori ere beste lanpostu batera atxikitzen da. Adierazi berresleipena 2014. urtearen amaieran edo 2015. urtearen lehenengo hiruhilekoan emango da, hurrengo parrafoarekin lotuta.

(**) Hezkuntzako arduradun lanpostua adierazi karrerako funtzionarioak betetzen du zerbitzu eginkizunetan. Udal langile hau Euskarako Hizkuntza Trebatzailea-Normalizatzailea lanpostura atxikitzen da. Adierazi berresleipena 2014. urtearen amaieran edo 2015. urtearen lehenengo hiruhilabetean emango dela, aurreko parrafoarekin lotuta.

(***) Lanpostu honen berresleipena baldintzatuta dago Kulturako Arduradun lanpostuaren horniketa izapidetzera. 2015. urteko lehenengo hiruhilekorako hornituta egon beharko litzateke gutxi gorabehera. Hala ere, Turismoa, Ekitaldiak eta Jaiak 2015. urtean dituen beharrei baldintzatuta, berresleipen hori aurreratu ahal izango da.

Halaber, 2015eko otsailaren 25ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak onartu zuen, besteak beste, "AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOEN ETA ARGIBIDE ESKAEREN ERANTZUN PROPOSAMENA, LORTUTAKO AKORDIOAK ETA AKATSEN ZUZENKETA" izeneko dokumentua, aipatutako espedientearen baitan.

Giza Baliabide Plana onartu eta urtebetera, komenigarria ikusi da plana aldatzea, interes publikoaren onurarako eta Udalaren jardunaren efizientziaren irizpideengatik.

Hori guztia ikusita, eta Gobernantza Batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, botoen gehiengoaz,

ERABAKI DU

UDALEKO GIZA BALIABIDE PLANAREN aldaketa hauek onartzea:

a) HEZKUNTZAKO ARDURADUNA.

HEZKUNTZAKO ARDURADUN lanpostuan atxikitzea, behin betiko, lanpostu hori gaur egun zerbitzu-eginkizunetan betetzen duen funtzionarioa.

JATORRIZKO LANPOSTUA	TITULARRA	TALDEA	ATXIKIPEN BERRIA	TALDEA	
1	Euskaltegiko irakaslea (Euskaltegia)	Arantza Aldalur Agerrista	A2	HEZKUNTZAKO ARDURADUNA (Hezkuntza) (*)	A2

(*) Adierazi berresleipena 2015. urtearen amaieran edo 2016. urtearen lehenengo hiruhilabeteen gauzatuko da.

b) LORATEGIETAKO ARDURADUNA

Gaur egun lanpostua betetzen duen funtzionarioak jarraituko du bertan.

JATORRIZKO LANPOSTUA	TITULARRA	TALDEA	ATXIKIPEN BERRIA	TALDEA	
1	Lorategietako arduraduna (Herrilan, Azpiegiturak eta Zerbitzuak)	Patxi Coira Rey	A2	LORATEGIETAKO ARDURADUNA (Herrilan, Azpiegiturak eta Zerbitzuak)	A2

c) KULTURAKO ARDURADUNA

Gaur egun lanpostua betetzen duen funtzionarioak jarraituko du bertan.

JATORRIZKO LANPOSTUA	TITULARRA	TALDEA	ATXIKIPEN BERRIA	TALDEA	
3	Kulturako arduraduna (Kultura)	Fernando Llopis Lucas	A2	KULTURAKO ARDURADUNA (Kultura)	A2

9.- UDALEKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTU ZERRENDA ALDATZEA. HASIERAKO ONESPENA

2015eko uztailaren 16an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki hau hartu zuen: behin-behineko langileen kopurua, ezaugarriak eta ordainsariak finkatzea eta, ondorioz, indarrean zegoen PLANTILLA ORGANIKOA eta LANPOSTUEN ZERRENDA aldatzea.

Orain, behin-behineko langileen zehaztapenak eta ordainsariak aldatzeko proposamena aurkeztu du PSE-EEk.

Hori horrela, Gobernantza Batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, booen gehiengoaz,

ERABAKI DU

Lehena.- Behin-behineko langileen ezaugarriak eta ordainsariak aldatzea eta, ondorioz, indarrean dauden PLANTILLA ORGANIKOA eta LANPOSTUEN ZERRENDA ere aldatzea, bertan ondoko zehaztapenak sartuta:

2015eko PLANTILLA ORGANIKOA

BEHIN-BEHINEKO LANGILEENTZAT GORDETA KO LANPOSTUAK

KODEA	IZENA	ZENBAT	TALDEA	AKT	HUTSAK	OHARRAK
1.2.5	Talde politikoko idazkaria	2	C2	2	0	% 100% / % 69,03

2015eko LANPOSTUEN ZERRENDA

BEHIN-BEHINEKO LANGILEENTZAT GORDETA KO LANPOSTUAK

IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULUA	HE	DER. DATA	LA	DED
Talde politikoko idazkaria PSE-EE (%69,03)	1	B	I	C2	16	18176,76		200	3		1	1

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratzen denetik 15 egun balioduneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izan daitezten.

Epe hori igarota erreklamaziorik aurkeztu ezean, erabakia behin-betiko onartutzat hartuko da. Bestela, berriazko erabakia hartu beharko da, egindako erreklamazioak erabakitzeke.

Hirugarrena.- Aurrekoa bete ostean, PLANTILLA ORGANIKOAREN eta LANPOSTUEN ZERRENDAREN aldaketak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, bai apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, toki-araubide arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duenak, 127. artikuluan, bai uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 16. artikuluan, xedatzen dutenaren arabera.

10.- ZINEGOTZIEN DEDIKAZIOAK ETA ORDAINSARIAK ALDATZEA

2015eko uztailaren 16an egindako osoko bilkuran, Udaltzarrak finkatu zituen, agintaldi berrirako, bai dedikazioak eta beren ordainsariak, bai zinegotzientzako eta udal taldeentzako dirusariak.

Orain, zinegotzien dedikazio eta ordainsariak aldatzeko proposamena aurkeztu du PSE-EE udal taldeak.

Hori horrela, Gobernantza Batzordeak irizpena eman ondoren, Udaltzarrak, botoen gehiengoaz,

ERABAKI DU

Lehena.- Honako kargu hauek dedikazio partzialen jardungo dute:

- 2. alkateorde Gloria Vazquez Herranz andreak (%78,97).
- PSE-EE udal taldeko zinegotzi Pablo Garcia Astrain jaunak (% 15)

Bigarrena.- Ordainsari hauek finkatzea, Udalean indarrean dagoen araubidearen arabera:

Gloria Vazquez Herranz and.:	(% 78,97 - 22. maila)	2.621,52 euro, 14 hilekotan
Pablo Garcia Astrain jn.:	(% 15 - 22. maila)	497,92 euro, 14 hilekotan

Hirugarrena.- Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrari eskatzea honako zinegotziari ALTA emateko:

- Pablo Garcia Astrain jn.

Udalak bere gain hartuko ditu Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorraren arauak enpresei –beren kontura dituzten langileei dagokienez– ezartzen dizkieten betebeharrak.

11.- 2016rako AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFAK

2002an, Eusko Jaurlaritzak 2/2000 Legea (turismo ibilgailuetan eskainitako hiriko eta hiri arteko garraioa arautzen duena) garatzen duen Erregelamendua onartu zuen. Lege horrek ezarritakoaren argitara, ARAUBIDE BEREZIKO EREMUA eratu zen Urola Kostan, Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia biltzen dituen. Hori guztia egin da, Lurralde Antolamendu eta Garapenerako Foru Diputatuaren aginduaren bidez (487/05 Foru Agindua, GAO 180 zk., 2005-09-22).

Urola Kostako Udal Elkarteak aurtengo urriaren 8ko idatziaren bidez (udaletxeko sarrera-erregistroan 10.436 zk.) Udal honi jakinarazi dionez, Taxiaren Eskualdeko Batzordeak erabaki du 2016rako taxien tarifei gehikuntzarik ez eskatzea eta 2015ean onartu ziren prezioak mantentzea; eta, bide batez, Gipuzkoako Taxien Elkarteak aurkeztutako dokumentazioa bidali du, Udalbatza honek onar dezan.

Urola Kostako Taxiaren Eskualdeko Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, batzorde horrek aurkeztutako "Auto-taxiaren idatzia 2016ko tarifei buruz" kontuan izanik, Hirigintza informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- 2016. urterako Zarauzko AUTO-TAXI ZERBITZUAREN HIRI-TARIFAK onartzea, ondoren zehazten denaren arabera:

TARIFA	Abiasaria	Ibilitako km-ko	Itxoite-ordua
1*	5,2286 euro	1,1158 euro	21,3091 euro
2**	6,2240 euro	1,7796 euro	34,7829 euro

Gutxieneko tarifan barne hartuta daude 1,5 Km-ko ibilbidea egitea edo 5 minutuz itxoiten egotea.

- (*) Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da, goizeko 07,00etatik gaueko 22,00etara.
- (**) Tarifa hau egunero aplikatuko da, gaueko 22,00etatik goizeko 07,00etara. Era berean, 2. tarifa hau goizeko 07,00etatik gaueko 22,00etara aplikatuko da, igandeetan, dagokion autonomia- eta toki-arautegian zehaztutako jaiegunetan eta larunbatetan, eta baita abenduaren 24 eta 31n ere.

Bigarrena.- Akordio hau Urola Kostako Udal Elkarteari bidaltzea, arauzko izapideak bete ditzan.

12.- UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

a) Irabazi Zarautz: Animaliak babesteko mozioa

IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak gai-zerrendatik kendu du mozioa.

Hurrengo gaia aztertzen hasi aurretik, **Maite Garrastazu** andrea batzar-aretotik irten da, gaian zuzeneko interesa duenez gero, abstenitu beharra duelako.

b) Irabazi Zarautz: Ameztiaren espedientearen erakunde-eskaera egiteko mozioa

Hurrena, IRABAZI ZARAUTZ taldeak aurkeztutako proposamen hau irakurri dute:

Xedea. Bozketan jartzea proposamen hau: Alkate jaunak presaz egin dezala Aiako Udalari Talaimendiko Amezti etxearekin lotutako espedientea eskatzeko tramitea.

Justifikazioa.

Talaimendin, hau da, Aiako lurretan, Amezti Etxea eraikitzeke lizentzi lortu zen, harritzeko moduan, kontuan hartu gabe Paisaiaren katalogoa (Eusko Jaurlaritzaren 90/2014 Dekretuak, ekainaren 3koak, dioena hartzen du oinarri). Eta hori garbi ikus daiteke Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak bidali zuen eskutitzean.

Begi-bistakoa da bere inpaktu bisuala kaltegarria dela Zarauzko udalerrientzat. Bertako bizilagunek beren buruari galdetzen diote ea horrelako obra bat legitimoa ote den, kontuan izanda hautsi egiten dituela landa-tipologia, nortasun kulturala, paisaiaren integrazioa, eta eraikinaren neurriek aldatu egiten dutela erabilera komuna, gainera, goi kota bat izanik, lurralde-antolamenduko puntu berezi bat ere badelako.

Harrigarria da, baita ere, Foru Aldundiak beste agiri batean nola esaten duen bere erantzukizun bakarra 2015eko maiatzaren 8an egindako Obra Ikuskapena izan

dela, eta aldi berean, egiaztatzen dute ez dakitela zein baldintzatan emanda dagoen udal lizentzia.

Era berean, ez dirudi legezkoa denik eraikinari zein erabilera emango zaion ez zehaztea. Kokapenari dagokionez, berriz, legez araututako perimetrotik kanpo geratzen da, eta guk ezagutzen ez ditugun dokumentuak egon egin behar dira derrigorrez.

Zarauzko Udala gai honetan alde interesatua denez gero, eskatzen dugu Aiako Udalari ofizioz eska diezaiola lehenbailehen emateko guri obra horren eta emandako lizentziaren inguruko espediente administratibo osoaren kopia bat, eskatu zitzaien arauzko edo ez arauzko dokumentazio guztiarekin batera. Berrito diogu: eskaera instituzionala izatea nahi dugu, eskaera ofizialki egin diezaiola Xabier Txurruka jaunak, Zarauzko Udalaren izenean, Aiako Udalari, eta bermatuta gera dadila espedienteko edukiaren fidagarritasuna, helburu nagusi hauekin:

- 1.- Obra horren legezotasuna edo/eta legitimitatea aztertzea.
- 2.- Gardentasun-beharra betetzea, Zarauzko herritarrak ziur egon daitezen bi udal horien kudeaketa ez dela diskriminatzailea eurekin.

Era berean, Gobernu Batzarrari eskatzen diogu ofizialki eska diezaiola Gipuzkoako Foru Aldundiari obra geldiarazteko, harik eta zantzu haiek arrazoizkoak diren ala ez erabaki arte. Eta hori ere lehenbailehen egin behar da, Udal honek ere zer dagoen ikusi eta dagozkion erabakiak har ditzan.

Udalbatzarrak ERABAKI DUT, botoen gehiengoaz, transkribatutako mozioa atzera botatzea.

c) Irabazi Zarautz: Talaimendin eragina duen itxiturari buruzko mozioa

Era berean, IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri dute. Honela dio:

Xedea. Xedea da jakitea zein iritzi daukan Udal Gobernuak gai hauen inguruan jaso den salaketa bati buruz: Talaimendin lizentziarik gabe egin den hesia, eta Talaimendiko eta Beastegiko itsas-lehorreko jabari publikoko gunera eta Iñurritza-Kontserbazio Bereziko Eremura (KBE) sartzeko itxitako bideak. Mozio hau eta idatzian aurkeztutako ekimenak Udalbatzarrean bozkatzeko eskatzea da helburua.

Justifikazioa.

Gure taldeak aurretik aurkeztutako mozio baten arabera, Talaimendin eraikitzen ari diren eraikinaren inguruan hesi bat altxatu dute dagokion hirigintza-lizentziarik gabe; eta hori horrela dela onartu zuen Udal honek.

Salaketa batzuen arabera, hesi horrek ez du uzten itsas-lehorreko jabari publikora sartzeko, eta itxi egiten du Beastegi mendira, Talaimendira edo itsas-lehorreko jabari publiko horretara joateko betidanik erabili izan den bidea, hain zuzen,

Zarauzko udalerrria eta Aiakoa lotzen dituen herri-bidea. Eta orain arte, inork ere ez du justifikatu zergatik egin den halako itxitura, nahiz eta herritar eta talde askok salatu duten espazio horiek erabilera publikokoak direla eta legez erabili nahi dituztela.

URA erakundeak agindua emanda dauka iparraldean dagoen hesia kendu edo lekuz mugitzeko. Gainera, jakin badakigu, Gipuzkoako Lurralde Historikoan ingurumen mailan aginpidea duen erakundearen aurrean, salaketa jarria dutela ingurune horren erabilera publikoan interesa duten taldeek, babestutako espezie (Belatz handia) baten habitatari eragiten diolako; izan ere, Talaimediko harkaitzetan egiten du bere habia, eta Inurritza-Kontserbazio Bereziko Eremuaren inguruan bilatu du bere bizilekua.

Zarauzko Udalaren ardura denez kontrolatzea, bai hesi horren instalazioaren legezkotasuna, eta baita Inurritzako inguruneari egiten dion eragina ere, honako mozioa tramitatzeko eskatzen dugu:

1.- Honakoa agintzen da: hesi hori orain dagoen tokitik kenduko da, dagokion hirigintza-lizentzia ez daukalako eta benetako arrisku bat delako hesi horren ondoko harkaitzetan bizi den belatz handia babestutako espeziearentzat.

2.- Hasiera emango zaio, ofizioz, espediente bati, azter ditzan bide publikoak, baita, kostaldeko legedi sektorialaren agintez bide-zortasuna izanik, Zarauzko eta Aiako udalerrriak lotzen dituztenak ere, Beastegi mendiraino iristen den herri-bidean barrena, Talaimendi zeharkatuz. Herri-bide horien trazadura zehaztu egingo da, aplikatu beharreko arauen arabera, eta lurraldearen hirigintza eta antolamenduko tresnan finkatuko da, kostaldeko legediaren arabera.

Udalbatzarrak ERABAKI DU, botoen gehiengoaz, transkribatutako mozioa atzera botatzea.

Aurreko aztergaia amaituta, **Garrastazu** andrea itzuli da bilkurara.

d) EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Irabazi Zarautz: Hassanna Aaliari elkartasunezko adierazpena

Hurrena, EAJ-PNV, EH BILDU, PS-EE eta IRABAZI ZARAUTZ taldeek aurkeztutako proposamena irakurri du **alkate** jaunak. Hona hemen mozioa:

HASSANNA AALIARI ELKARTASUNEZKO ADIERAZPENA

Mozio hau izenpetzen duten talde politikoek, indarrean dagoen legeriaren babesean, bere eztabaidarako eta onespenerako hurrengo PROPOSAMENA aurkezten diote Erakundearen Osoko Bilkurari, Hassanna Aaliari babes politikoa ukatzearen inguruan (eta Estatu espainiarra uzteko 15 eguneko epeari buruz).

Hassanna Aalia 1988an El Aaiunen jaio zen, Mendebaldeko Saharan.

2010ean Gdeim Izik kanpamentuko protesta baketsuan parte hartzen du aktiboki. Gertaera honengatik epaitua izan zen eta lau hilabeteko espetxe zigorra ezarri zioten.

2011ko urrian ikasketa-beka bati esker Bilbora bidaiatzen du. El Aaiunera itzultzeko bi hilabete falta zirenean bere izena agertzen da Gdeim Izikeko gertaerengatik Auzitegi Militar batek epaituko dituen pertsonen zerrendan; hark Bilbon geratzea erabakitzen du eta gobernu espainiarrari babes politikoa eskatzea, bere herrira itzuliz gero autoritate marokoaurrek kartzelatuko luketelako.

2013ko otsailaren 17an Rabateko Auzitegi Militarrek 25 zibil sahararren kontra sententzia ematen du; Hassanna Aaliari biziarteko kartzela-zigorra zigorra ezartzen dio (errebeldian aitortuta).

Hainbat nazioarteko legelari prestigiosok epaiketa erabat deuseztat jotzen dute: ez zegoen ez lekuko fidagarririk ez probarik, horrela Nazioarteko Zuzenbideari (Genevako Hitzarmena) bizkarra emanez.

Harrezkero estatu espainiarrean zehar dabil, kartzelatutako bere lagunek sufritzen duten babesgabatasun egoera jakinarazten eta erregimen marokoaurrek egunero Herri Sahararra menderatze aldera eragiten duen bidegabekeria salatzen.

2015eko urtarrilaren 19an Hassannari bere babes-eskaerari uko egiten zaiola jakinarazten diote eta lurralde espainiarra uzteko 15 eguneko epea ematen diotela.

Hassannaren abokatuek Auzitegi Nazionalean helegitea aurkeztu zuten eta onartua izan zen. **Auzitegi Nazionalak kanporatzeko aginduari buruz emandako kautelazko eteteak Hassanna Aalia babesten du.** Une honetan, Hassanna Auzitegi Nazionalak bere asilo-eskubideari buruz eman beharreko behin betiko ebazpenaren zain dago.

2015eko urriaren 6an Burgosen atxilotu zuten. Ondoren zehapen-prozedura bat zabaldu zioten, bere abokatu Javier Canivellek 48 ordu baino gutxiagoan errekurritu duena. Prozesu hau estatutik kanporatzeko proposamenean amai daiteke.

Guzti hau dela eta, egoeraren larritasunaren aurrean, Zarauzko Udalak honako **ERABAKIAK** hartu ditu:

1. Hassanna Aaliari eta bere familiari sostengua eta elkartasuna adieraztea.
2. Arbuiatu egiten du Hassanna Aalia giza eskubideen aldeko saharar ekintzailea urriaren 6an Burgosen atxilotu izana eta ondoren zabaldu den prozedura.
3. Egiaztatzen du Auzitegi Nazionalak kanporatzeko aginduari buruz emandako kautelazko eteteak Hassanna Aalia babesten duela. Une honetan, Hassanna Auzitegi Nazionalak bere asilo-eskubideari buruz eman beharreko behin betiko ebazpenaren zain dago.

4. Barne Ministerioari eskatzen dio Hassanna Aaliak asilo politikorako duen eskubidea aitortu dezala, bere erabakia berriz aztertuz, nazioarteko babes-eskaera 12/2009 Legeak ezarritakoarekin bat onartuta. Izan ere, bere herrialdera itzuliz gero Marokoko agintari okupatzaileek gogor zigortuko dute eta ezin izango da presondegitik irten bizitza osoan, politikoki aktiboa eta nazioartean ezaguna izateagatik, saharar herriaren autodeterminazio-eskubidearen alde modu baketsuan borrokatzeagatik.

5. Marokoko Gobernua Mendebaldeko Saharan eragiten ari den Giza Eskubideen bortxaketa areagotzen ari dela eta gure ardura azaltzea. Errepresio egoera honi amaiera ematea eta Saharako preso politiko guztiak aske uztea.

6. Berretsi egiten ditu bere konpromisoa Saharar Herriarekin eta bere babesak ekimen politiko eta sozialen alde, konponbide justua eta behin betikoa lortzera bideratuta, NBEk adostutako Autodeterminazio Erreferenduma ospatzea eskatuz; hau baita konflikto luze hau lurraldearentzat modu iraunkor, baketsu eta egonkorrean konpontzeko era bakarra.

7. Akordio hauek ondoko erakundeetara bidaltzea:

- ESPAINIAKO ERREGE-ETXERA
- ESPAINIAKO GOBERNU BURUARI
- KANPO HARREMANETARAKO ESPAINIAR MINISTROARI
- ESPAINIAKO BARNE MINISTROARI
- NAZIO BATUEN AURREKO ESPAINIAKO MISIO IRAUNKORRARI
- ACNURREN ORDEZKARITZA ESPAINIAN
- EUROPAKO PARLAMENTUKO PRESIDENTEARI
- EUROPAR KONTSEILUKO PRESIDENTEARI
- MAROKOK ESPAINIAN DUEN ENBAXADARA.

Udalbatzarrak, aho batez, aurreko mozioa onartzea ERABAKI DU.

e) EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Irabazi Zarautz: Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari eskaera egiteko mozioa

Azkenik, EAJ-PNV, EH BILDU, PSE-EE ETA IRABAZI ZARAUTZ udal taldeek aurkeztutako proposamena irakurri du **alkate** jaunak. Hona hemen testua:

“Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketan argazkiak, herriz herri” lanerako dokumentua helarazi zion Zarautzko Udalerri Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak 2015eko irailan. Udalerri bakoitzari dagokion liburuxkan, udalerri horretan bertan eraildako biktimak aipatzen dira, bai eta beste lekuren batean hil arren, udalerri horretan jaino edo bizitakoak ere. Hori kontutan hartuta, mozio hau izenpetzen duten talde politikoek, ondoko eskaera luzatzen diote Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari:

MOZIOA

Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari eskatzen diogu Zarauzko udalerriri dagokion “Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketan argazkiak, herriz herri” agiri informatiboa osatze aldera, hurrenez hurren aipatzen ditugunak kontutan hartzea:

1.- 1972.urteko irailaren 2an Lekeition Guardia Zibilak hildako Jose Benito Mujika Zumeta *Xenki* zarauztarraren kasua, dokumentu horren “egiaztatze eta ikerketa lan handiagoa behar duten kasuak” atal barruan barneratzea azter dezala eta kasuaren ikerketari bultzada bat ematea, eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak jartzea, gertakari hau lehenbailehen argitu dadin.

2.- 2000.urteko maiatzaren 7an Andoainen ETAk hildako José Luis López de Lacalle, Zarauzko bizilaguna Zarauzko zerrendan barneratzea azter dezala.

3.-1983. urteko uztailaren 7an Getariako Portuan Komando Autonomo Antikapitalistek hildako Rafael Gil Marín eta Enrique Rua Díaz Zarauzko Kuarteleko Guardia Zibilen hilketaren dokumentuan barneratzea azter dezala.

4.-Zalantza hauek argitzea eta kokapen irizpide zehatzak finkatzea eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari.

5.-Nahiz eta euskal kasutik kanpo jazotako indarkeriaren baitan gertatutako bizitzeko eskubidearen urraketa izan, 2007.urteko uztailaren 2an Al Kaedak Yemenen hildako Magie Alvarez eta Mikel Essery zarauztarren kasua Zarauzko Udalak bere garain landutako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketan dokumentuan barneratzea adosten dugula.

Udalbatzarrak, aho batez. transkribatutako mozioa onartzea ERABAKI DU.

Eta aztertzeke besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, osoko bilkurari amaiera eman diote, gaueko bederatzi eta eta erdietan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.